

EUSKAL ESTATUAREN PERTZEPZIOA. IKERKETA KUANTITATIBO ETA KUALITATIBOA

**Parte Hartuz Ikerketa Taldea (UPV/EHU)
Ipar Hegoa Fundazioa**

Azkeneko urteotan Europako estaturik gabeko nazioek *Erabakitzeko eskubidearen* inguruan eginiko aldarrikapenak abiapuntu hartuta, 2012an **Ipar Hegoa Fundazioak** eskaera egin zien Euskal Herriko hainbat irakasle eta adituri balizko Euskal Estatu bat bideragarria izan zitekeen aztertzeke. Emaidza mardula eta interesgarria izan zen: *Euskal Estatuari bidea zabaltzen* izeneko hiru liburuki atera ziren, hainbat arlo aztertuz. Urrats bat aurrera eginez, Eskozian eta Katalunian gertatu diren independentzia prozesuak abiapuntu hartuta oraingoan, 2014an ikerketa berria hastea pentsatu zen, Euskal Herriko biztanleek balizko Euskal estatu baten aurrean zer jarrera zuten aztertzeke.

Helburu horrekin, **Parte Hartuz Ikerketa taldeak (UPV/EHU) eta Ipar Hegoa Fundazioak** hitzarmen bat sinatu dute ***Euskal Estatuaren Pertzepzioa. Ikerketa kuantitatibo eta kualitatiboa*** izeneko gaia lantzeke. Momentuz ikerketa kuantitatiboa egin da, eta dokumentu honetan datu esanguratsuetako apur batzuk nabarmendu nahi dira.

1. EUSKAL ESTATU BATI BURUZKO GALDEKETA EUSKAL ZAZPI LURRALDEETAN. Lan honek bi bereizgarri ditu orain arte egin diren beste batzuen aldean. Alde batetik, zuzenean galdetzen da jendearen iritzia *Euskal estatu* baten aukeraren aurrean; euskal estatuaren aukerak zentratzen du gaia. Beste aldetik, *Euskal estatu hipotetikoa* kokatuko litzatekeen lurralde osoan egin da galdeketa, euskal zazpi lurraldeetan, alegia.

2000 inkesta egin da, telefonoz, 2014ko urria eta 2015eko otsaila tartean, Aztiker enpresak bideratua. Akats tartearen kalkulua lagin osoarentzat \pm

%2,4koa da Hego Euskal Herrian, eta \pm %4,9koa Ipar Euskal Herrian, eta denean %95,5koa da konfiantza maila (fitxa teknikoa atxiki da).

2. EUSKAL/NAFAR ESTATU BATI BURUZKO IRITZIA. Galdera zehatza eginda, erreferendum batean zer erantzungo luketen galdetuta, **gehienak euskal/nafar estatuaren alde leudeke: %40,7**. Apur bat gutxiago dira kontra leudekenak: %35,3. Esanguratsua da 5etik batek ez dakiela zer erantzun, edo ez du erantzun nahi, edo abstenitu egingo litzatekeela. Zenbat eta gazteago izan, estatuaren aldekoago. (ik. 1. eta 2. koadroak)

3. ERABAKI ESKUBIDEARI BURUZKO IRITZIA. Galdera zehatza eginda, Euskal Herriko **biztanleen 2/3 etorkizun politikoa erabakitzeko galdeketa egitearen alde** agertzen da: **%66,8** (Ipar Euskal Herrian %52,9). Hortaz, kontrako boza emango lukeen asko prest dago galdeketa egiteko. (ik. 3. koadroa)

4. EUSKAL HERRIA ZER DEN INGURUKO IRITZIA. Hiru aukera nabarmentzen dira. **Gehiengoak Euskal Herria euskal zazpi lurraldeekin identifikatzen du: %46,2**. Horrez gain, asko dira Euskal Autonomia Elkartearekin lotzen dutenak: %40,9, batez ere Nafarroa Garaian. Aipatzekoa da, azkenik, Ipar Euskal Herrian %35,5ek Ipar Euskal Herriarekin identifikatzen duela (ik. 4. koadroa)

5. NAZIO IDENTITATEARI BURUZKO IRITZIA. Ohiko aukerez gain, *nafar* gisa definitzeko hautua ere sartu da galdetegian. **Oro har, identitate partekatua nabarmentzen da:** euskal herritarra/nafarra bezain espainiarra edo frantziarra. Garrantzi handia du *Soilik euskal herritarra* sentitzeak, baina Gipuzkoan eta Bizkaian bakarrik da esanguratsua.

Ipar Euskal Herrian oso nabarmena da Frantziaren aldeko joera: %72,5 sentitzen da *euskal herritarra bezain frantziarra, frantziarrago euskal herritarra baino, edo frantziarra soilik.*

Nafarroa Garaian oso esanguratsua da, askotan uste ez bezala, **oso jende gutxik hartzen duela bere burua soilik nafartzat: %6.** Identitate partekatua nabarmentzen da, aitzitik, bai espainiar izatearekin batuta, %34,5; edo bai euskal herritar izatearekin batuta: %30,4 (ik. 5. koadroa)

1. eta 2. koadroak. EUSKAL-NAFAR Estatu bati buruzko iritzia

Galdera. [EAE] Demagun Euskal Herrian alderdi politiko guztiek edo gehienek adosten dutela Euskal Estatuari buruzko galdeketa edo erreferenduma egitea. Galdeketan Euskal Estatuaren alde edo kontra zauden galdetzen zaizu. Zer erantzungo zenuke?

[NAFARROA] Demagun NFKn alderdi politiko guztiek edo gehienek adosten dutela Nafar Estatuari buruzko galdeketa edo erreferenduma egitea. Galdeketan Nafar Estatuaren alde edo kontra zauden galdetzen zaizu. Zer erantzungo zenuke?

[IPARRALDE] Demagun, galdeketa edo erreferenduma IEH barne duen Euskal Estatuari buruzkoa dela, hau da, Euskal Estatuaren alde edo kontra zauden galdetzen zaizu. Zer erantzungo zenuke?

Lurraldearen arabera

	Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia	Ipar EH	Euskal Herria
Alde	29,2	54,9	40,0	38,7	28,3	40,7
Kontra	45,5	19,0	41,8	36,2	46,2	35,3
Abstentzioa	4,5	3,5	2,2	4,0	12,2	4,3
Ez daki	17,3	19,3	13,9	18,2	10,7	16,8
EE	3,5	3,3	2,0	3,0	2,7	2,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Adinaren arabera

	18-34	35-54	55+	Guztira
Alde	57,3	38,7	32,9	40,7
Kontra	24,8	36,6	40,1	35,3
Abstentzioa	3,1	4,7	4,7	4,3
Ez daki	14,5	16,5	18,5	16,8
EE	0,3	3,5	3,8	2,9
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0

3. koadroa. Erabakitze eskubideari buruzko iritzia

Galdera. Euskal gizarteari ere bere etorkizun politikoa erabakitze galdeketa egitearen alde edo kontra zaude?

Euskal / nafar gizarteari ere bere etorkizun politikoa erabakitze galdeketa egitearen alde edo kontra zaude?

Lurraldeka

	Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia	Ipar EH	EH
Alde	62,2	79,1	57,1	69,1	52,9	66,8
Kontra	28,0	12,2	34,9	20,7	31,0	23,3
Ez daki	7,2	6,2	5,5	7,7	13,9	7,4
Erantzunik ez	2,5	2,5	2,5	2,5	2,2	2,5
Total	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

4. koadroa. Euskal Herriari buruzko iritzia

Galdera. Euskal Herriaz hitz egiten denean, zer da zure ustez Euskal Herria?

	Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia	Ipar EH	EH
EAE	52,2	30,8	57,9	44,4	0,7	40,9
EAE eta NFK	6,2	6,2	6,5	4,2	0,0	5,0
IEH	0,7	0,0	0,7	0,0	35,5	3,4
Euskal Herriko zazpi herrialdeak	35,5	59,0	30,9	46,4	59,8	46,2
Beste	1,2	0,7	0,7	1,2	0,7	1,0
Ez daki	2,5	2,5	2,0	3,2	3,2	2,7
Erantzunik ez	1,5	0,7	1,2	0,5	0,0	0,8

5. koadroa. Nazio identitateari buruzko iritzia

Galdera. Euskal herritar izatearen, Nafar izatearen eta Espainiar/Frantziar izatearen artean, nola definituko zenuke zure burua ondorengo aukeren artean?

	HERRIALDEA					
	Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia	Ipar EH	EH
Soilik euskal herritarra	18,0	39,6	5,2	29,7	10,7	24,1
Euskal herritarra espainiarra/frantziarra baino gehiago	20,7	25,4	0,0	20,4	11,7	16,7
Euskal herritarra bezain espainiarra/frantziarra	44,5	24,4	0,0	36,2	31,3	26,6
Espainiarra/frantziarra euskal herritarra baino gehiago	5,2	2,7	0,0	5,5	17,4	4,8
Soilik espainiarra/frantziarra	5,0	2,2	4,5	2,0	23,8	4,8
[Nafarroa Garaia] Nafarra eta euskal herritarra	0,0	0,2	30,4	0,0	0,0	6,2
[Nafarroa Garaia] Soilik nafarra	0,0	0,2	6,0	0,0	0,0	1,3
[Nafarroa Garaia] Nafarra eta espainiarra	0,0	0,0	17,0	0,0	0,0	3,4
Nafarra espainiarra baino gehiago	0,0	0,0	9,5	0,0	0,0	1,9
Nafarra bezain espainiarra	0,0	0,0	17,5	0,0	0,0	3,5
Espainiarra nafarra baino gehiago	0,0	0,0	4,5	0,0	0,0	0,9
Beste	5,2	4,0	4,0	5,0	3,7	4,5
ED	0,2	0,0	1,0	0,5	1,2	0,5
EE	1,0	1,2	0,5	0,7	0,0	0,8

BESTE DATU BATZUK

- Euskal Estatu bati buruzko iritzia boz politikoaren arabera

	Alde	Kontra	Abstentzioa	Ez daki	EE
PP-UMP-UPN	0,7	14,6	7,1	4,7	2,0
PSOE-PS	2,8	21,9	5,9	10,3	0,9
EAJ-PNV	18,9	7,1	0,0	12,3	6,5
Amaiur -EH Bai	30,3	0,1	0,6	4,2	4,4
Geroa Bai (Naf.)	3,2	0,4	0,0	0,3	3,5
IU	2,2	4,6	1,2	4,2	0,0
UPyD	0,0	2,1	0,0	0,3	0,9
Beste	1,6	3,8	1,1	6,0	2,3
Abstentzioa	16,0	15,9	41,4	21,1	11,4
Bozka zuria	0,5	3,1	3,8	1,5	6,8
Ezin izan nuen bozka eman	5,0	2,7	1,7	3,8	0,0
EE	18,6	23,7	37,3	31,3	61,3
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

- Euskal Estatuaren bideragarritasunari buruzko iritzia

	Baleko Portzentajea
Batere ez	16,2
Gutxi	15,3
Nahikoa	23,0
Bideragarria	18,3
Oso bideragarria	13,9
ED	12,4
EE	1,0
Total	100,0

- Euskal Estatuaren ustezko onurari buruzko iritzia

Euskal/Nafar Estatu propioa sortuko balitz, orokorrean, hobeto, berdin edo okerrago biziko ginatkeela uste duzu?

	Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Bizkaia	Ipar EH	EH
Hobeto	29,0	47,3	30,4	34,4	22,3	34,9
Berdin	20,5	19,2	18,7	23,2	37,0	22,3
Okerrago	25,2	14,9	24,4	19,7	20,1	20,2
Ez daki	23,7	18,2	24,9	22,4	20,6	21,9
Erantzunik ez	1,5	0,5	1,5	0,2	0,0	0,7

- Euskal Estatutik at, beste egituraketa politikoei buruzko iritzia

[HEGOALDERAKO GALDERA] Euskal/Nafar estatuaren aukera alde batera utziko bagenu, EAE eta NFKren artean autonomia bakarra (Espainiaren barruan) sortzearen alde ala kontra egongo zinake?

					Guztira
	Alde	Kontra	Ez daki	Erantzunik ez	
EAE	58,0%	23,9%	16,3%	1,8%	100,0%
Nafarroa	36,6%	51,1%	10,3%	2,0%	100,0%
Hegoaldea	53,2%	29,9%	15,0%	1,9%	100,0%

[Kontra, ez daki edo erantzunik ez esan dutenei egindako galdera]

EAE eta Nafarroak, betiere orain arte bezala bakoitzak bere autonomia erkidegoan jarraituta, bien artean harreman gehiago izatearen alde ala kontra zaude?

	Alde	Kontra	Ez daki	Erantzunik ez	Guztira
EAE	79,2%	4,5%	13,8%	2,5%	100,0%
Nafarroa	72,8%	8,6%	16,3%	2,3%	100,0%
Hegoaldea	77,3%	5,7%	14,5%	2,5%	100,0%